


Balio Proposamena

Tech4all erabilitako teknologiarri bigarren erabilera bat emateko sortutako proiektua da. Batez ere, birziklatzea eta naturari mesedea egitea izan arren denda honen helburu nagusia, beste hainbat onura ere egiten dio gizarteari. Esaterako, teknologia Euskal Herriko familia guztien eskuetara zabaltzea eta matxuratutako aparatuak dituzten pertsoneri konponketa zerbitzu bat eskaintzea.

- Gailu elektroniko berriak erosteko ahalmenik ez dutenez familia askorek, horientzat Tech4all aukera bikaina da. Tech4all-en dauden gailu guztiak berriek baino salneurri txikiagoa dute eta teknikoek berrikusita daude beraien funtzionamendu zuzena ziurtatzeko. Horrela, eskualdeko familia guztiek teknologiarako sarbidea izango dute eta gizartean eta hezkuntzan berdintasun bat lortzeko pausu bat aurrera emango da.

- Bestalde, gaur egun naturaren hondamendiaren arazo nagusienetako bat hondakin teknologikoak dira. Horien murrizketa bat lortzeko Tech4all-ek gailu zaharkituak konpontzeko konpromisoa hartzen du. Behin konponduak izan eta gero salmenta prezio baxuagoa izango dute, horrela lehen atalean aipatu den bezala eros-ahalmen txikiagoa duten familientzat hauek eskuratzea errazagoa izango da.



- Arazo berdinarekin jarrituz, zabor teknologikoen isurketa gutxitzeko beharrezkoa ikusten dute Tech4all-eko sortzaileek lehen eskuko gailuak konpontzea. Horretarako gailu elektronikoaren konponketarako departamentu bat izateko konpromisoa hartzen dute, sail horretako teknikoek bezeroen gailuak konponduko dituzte prezio lehiakor batean jartzeko asmotan eta gainera salmentan jartzeko diren gailuei azterketa sakon bat egingo die.

